



ERRETERIA  
UDALA

XXXIX.

# Madalen Sariak

2026. Errenteria



# 1. MAILA POESIA

Ez da lanik aurkeztu

## 1. MAILA PROSA

1. SARIA UXUE PATIÑO MUGARZA  
AMONA GURPIL-AULKI BATEAN
2. SARIA NADIA CORREA CAMPOS  
DIARIO SEKRETUA
3. SARIA IAN RODRIGUEZ FERRERAS  
PET MUNDUA

AKZESITA IRAIA ARROYO FRANCO  
HIRU ANAIA ITSASOAN GALDUTA  
AKZESITA NAHIA GAJATE SALVADOR  
HOSTO MAGIKOA  
AKZESITA NOA LOPERA ARANZABAL  
LUNA, LAURA ETA LLUNA KATUA

## 2. MAILA PROSA

1. SARIA XUNE ZAPIRAIN URDANPILLETA  
KATTALIN
2. SARIA MARKEL ARRIETA IZAGIRRE  
GAZTELUKO ITZALAK
3. SARIA ANUK PUERTOLAS ATXUKARRO  
ROSI ETA EMI

AKZESITA UDANE ETXEBESTE CERECEDA  
EZIN BERTIN!  
AKZESITA EIDER GARCA PÉREZ  
BIRRAMONA?  
AKZESITA ARHANE MINER LOPEZ DE ABERASTURI  
AZKEN IPUINA

## 2. MAILA POESIA

1. SARIA MARA LUISA GARRASTACHU DIAS  
MAITASUNA
2. SARIA ELAIA BERASATEGI AGIRRE  
ERRUDUNAREN BIDAIA
3. SARIA LAIA VILLANUEVA MARTIN  
NATURA MAITEA

AKZESITA MALEN JIMENEZ CHANCA  
BI PERTSONEN ARTEKO MAITASUNA  
AKZESITA MARTINA BEZANILLA PEREZ  
URTAROAK  
AKZESITA ELIA FRANCO ENCINAS  
ZERGATIK, GERNIKA?

## 3. MAILA POESIA

1. SARIA NAGORE USABIAGA IRAOLA  
BOST ZENTZUMEN, KRISKITIN BAT
2. SARIA XUBAN CERRATO VENTURA  
JAINKOEN OIHARTZUNA
3. SARIA LIDE BERZAL GRACIA  
TAUP-TAUP

AKZESITA MARTIN VALLEJO ALBISU  
MINA  
AKZESITA AIORA MARTIN PEÑA  
ZURE PRESENTZIAN  
AKZESITA LIBE AGIRRE SAENZ DE URTURI  
ZULOAN

## 3. MAILA PROSA

1. SARIA SIMONE LUIS GRAÑA  
AGURRA

2. SARIA LEIRE ALONSO PALOS  
JARE NON ZAUDE?

3. SARIA RUTH BERGAZ ARMENTEROS  
OROITZAPENAK

AKZESITA HECTOR MARCOS CEBALLOS  
TURKESA ITSASOA

AKZESITA XARE IMAZ GIL

NIRE BIDAIA

AKZESITA MICHELLE OWIE ALOHAN

NERABEZAROAN GELDITU BEHAR DEN BULLYING-A

## 4. MAILA PROSA

1. SARIA PERLA YOSMARY CASTRO FLORES  
PUNTUA ETA KOMA

2. SARIA AITOR SANZ ALVAREZ  
DUELA IA EHUN URTE ETORKIZUNA IKUSI ZEN PARISEN

3. SARIA GRETA FOTINOPULOS BADIES  
BIZITZA ALDAKETA

AKZESITA NOA PASCUAL GOMEZ  
ZUBIA

AKZESITA MAIDER VILLA ALBERDI  
LEHENENGO EGUNA

AKZESITA ALEXANDRA PAVLYUK IVANYUK  
ILUNTASUNEAN DISTIRA BADAGO

## 4. MAILA POESIA

1. SARIA JON GORROTXATEGI ALCALA  
SUNTSITURIKO AMETSAK

2. SARIA SUA ECHAVE BERRA  
BAKARDADEA

3. SARIA JULE ARANETA BANDRES  
GORPUTZIK GABE OIHUA IZATEN JARRAITZEN DUT

AKZESITA UXUE MICHELENA GIL  
SUFRITU GENUENA

AKZESITA MAIRI MAYA CASTAÑO  
ITSASOARI BEGIRA

AKZESITA IRENE DOMINGUEZ DE LA CRUZ  
ARROSA BELTZEN ARTEAN

## 5. MAILA POESIA

Et da lanik aurkeztu

## 5. MAILA PROSA

1. SARIA HEGOA ILLARRETA BEÑARAN  
DINOSAUROAREN ITZALETIK IHESI

2. SARIA NAHIA HERRERO BENITO  
DINOSAURO AMAIGABEA

3. SARIA JUNE HARISMENDY LAMARCA  
INBOLUZIOA

AKZESITA MAIALEN GARAYARTABE AZCONA  
BERRIRO ERE BETIKOA

AKZESITA RIHAB TAHTAH ASSOUKI  
HAIZEAREN ERLOJUAREN AHOTSAK

AKZESITA UXUE GARCIA SANCHEZ  
GOIZEKO ITZALA



## AMONA GURPIL –AULKI BATEAN

Bazen behin amona bat Mari Carmen deitzen zena. Mari Carmen bere biloba Josefekin jolasten zegoen eta amonak esan zuen:

–Gora noa bazkaria egiteko.

Igo egin zen eta amona nahi gabe erori zen. Josef korrika igo zen eta ikustean...

-Amonaaaaaa!!! Zer gertatu zaizu!

-Josef, erori egin naiz –esan zuen amonak.

Gero Josefek Hector medikuari deitu zion eta amonari gurpil-aulki bat jarri zioten. Josef eta amona joan ziren merkataritza-gunera eguna alaitzeko. Bertan ekintza asko egin zituzten: bi izozki erosi zituzten, parkera joan ziren eta zinemara pelikula bat ikustera ere bai. Amona oso ongi moldatu zen gurpildun aulkian ibilita, eta oso ongi pasa zuten.

Beste egun batean Hector medikuarengana joan ziren amona nola zegoen ikusteko. Aste bat pasa ondoren, emaitzak eman zizkieten eta gurpildun aulkia kendu zioten.

Josefek asko ikasi zuen amonarekin egun haietan, bizitza ahalik eta gehien disfrutatu behar zela argi ikusi zuen. Baita arazo guztiek irtenbide bat dutela ere.

Uxpa



## DIARIO SEKRETUA

Bazen behin, orain dela asko, hiru lagun eta txakur bat herri txiki-txiki batean. Herri txiki hori deitzen zen Balle Magikua. Lagunak hauek ziren: Natalia, 35 urtekoa, Olivia, 31 urtekoa eta Abril, 32 urtekoa, eta txakur hori Lili deitzen zen. Txakurra oso bihurria zen eta beti jolastu nahi zuen pilota batekin.

Egun batean, hiru lagunek hartu zuten kotxea, egin zituzten maletak, txakurra kotxean sartu zuten eta beste herri batera joan ziren egun batzuk pasatzera. Herri hori deitzen zen Albarka eta mendi oso altuan zegoen.

Iritsi zirenean, apartamentu bat alokatu zuten, maletak utzi eta arropak aldatu zituzten mendira paseatzera joan nahi zutelako. Paseatzera joan aurretik, herriko tabernan zerbait hartzea erabaki zuten.

Tabernan zeudenean, ate oso misteriotsu bat aurkitu zuten. Ate hori itxita zegoen, eta ezin zen ireki, baina hiru lagunek bultzatu eta irekitzea lortu zuten; kobazulo bat zegoen. Oso ilun zegoen, baina aurrera jarraitu zuten, linternak zituztelako. Denbora luzez ibili ondoren, gutun bat aurkitu zuten lurrian. Gutuna irakurri zuten, eta esaten zuen altxor bat ezkutatuta zegoela kobazuloan. Oinez jarraitu zuten, eta armiarma erraldoi batekin topo egin zuten. Linternak itzalita zeuden, batek bakarrik funtzionatzen zuen.

Armiarmaren atzean zulatzeo pala bat zegoen, orduan, txakurra, oso azkarra zenez, zulatzeo pala hartzen ausartu zen. Armiarmak txakurra hil nahi zuen, baina txakurra zaunka hasi zen, eta armiarmak, beldurrez, atzera egin zuen. Orduan txakurrak zulatzeo pala hartu ahal izan zuen. Txakurrak zulatzeo pala eman zien hiru lagunei. Gero aurrera jarraitu zuten, eta botoi asko aurkitu zituzten kobazuloko horman, eta orduan, eman zieten zazpi botoiri eta botoi bakoitzetik giltza bat atera zen. Giltzak lurrera erori zirenean, konturatu ziren X bat zegoela lurrian markatuta. Hiru lagunak zulatzen hasi ziren eta berehala aurkitu zuten kutxa bat. Giltza guztiekin kutxa irekitzen saiatu ziren, eta azken giltzarekin kutxa irekitzea lortu zuten. Hiru lagunek altxor bat aurkitu zuten, bitxi eta txanpon zaharrez betetako kutxa bat.

Eta hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan.

Naco



## PET MUNDUA

Hau animalien istorioa da.

–Kaixo, ni Maxi naiz, 10 urte dauzkat, Suneok bezalako ilea daukat, katuak bezalako isatsa daukat, belarriak katuarenak bezalakoak, eta hortz bat zorrotza daukat.

–Kaixo, ni Gohan naiz. Maxi bezalakoa, baina ez dauzkat ileak Suneok bezala, eta hortz zorrotza daukat.

–Kaixo, ni Ilargi naiz. Maxi eta Gohan bezalakoa naiz, 11 urte dauzkat. Neska naiz, eta ilea begietaraino daukat.

–Kaixo, ni Mia naiz, 11 urte ditut. Hegoak dauzkat, tximeletarenak bezalakoak, eta 2 tximeleta antena dauzkat.

Istorio hau beste dimentsio batean gertatzen da, eta hau da istorioa:

08:55ak dira eta Maxiren gainean ur pixka bat erori zaio eta esnatu da. Gero, 2 min pasa, eta Maxi eskolan zegoen, eta oso esna zegoen. Hau zortea!, pirata hezkuntza zelako, eta bakarrik egin zuten. Maxi, Mia eta Ilargik bukatu zuten obstakuluaren lasterketa. Ia bukatuta zeuden. Maxi, Gohan eta bere lagunak futboleko jolasten zeuden. Gohanek gaizki eman zion baloiari eta Ilargik hartu zuen.

–Zergatik bihar ez dugu neskak mutilen kontra jolasten? –esan zuen Ilargik.

–Bai –erantzun zuen Maxik.

–Baina beste egunetan 10-0 galdu genuen –esan zuen Gohanek.

Zuhaitzetako etxean Maxi eta Gohan Ilargiri, Miari eta Lolari espatzen ari dira. 22:10ean Gohanek Maxiri bultzatu dio eta Maxik skater-arekin oztopo egin du atari pirata batekin.

Jolas orduan futboleko jolasten 10-0 irabazi zuten bere teknika berriarekin. Azken momentuan, Maxik baloia zuhaitzetatik gora bota zuen.

–Zu joango zara –esan zuten denek.

Maxi joan zen eta ikusi zuen baloia atari batean sartu zela:

–AAAA!!!! –garrasi egin zuen eta azkar baloia hartu eta joan zen. Gero esan zuten denek.

–Bai joango gara gauean –esan zuen Miak, ia gauean joan dira.

–Goazen mundu piratarara –esan zuen Maxik. Maxik ezpata hartu eta flas-flas-flas hasi zen.

–O-o-o-ori-ka-kap-kapi kapitaina!!!! –garrasi egin zuen Llak Sparrou-k.

–Zeinek deitu dit? –esan zuen kapitainak.

Sartu dira denak eta Llak Sparrou, barkatu, esan nahi nuen kapitain Llak Sparrou. Gero entrenamendu handi bat, geroago topo egin zuten Perla Beltzarekin eta borroka handi bat egon zen.

–Agur eta gau beltza, jajaja –Perla Beltzaren kapitaina zena.

Beranduago Perla Beltza bota zuen azkenaren lehenago beste alde batekin. Itsasontzian.

–A!, dena galduta!! –esan zuen kapitainak.

–Nik uste det ezetz –esan zuen Bil el Botas-ek

–A, Bil el Botas –erantzun zuen kapitainak.

–Eta ni giltza naiz –esan zuen Bil el Botasek.

Beranduago

–Eta azkena –esan zuen kapitainak.

–Ba ez –esan zuen tripulante batek.

–A, Bil el Botas, badakizu zer pasatzen den? –esan zuen kapitainak.

–Bai, eta, orain!! –erantzun zuen Bil el Botasek.

Pun Pun Pun!!! Txin!!

–O, ez!! Agur, hilko naiz!!! –esan zuen kapitainak.

Lurrean

–Uretara joango gara –esan zuen Maxik.

Pets munduan

–Zelako abentura!! –esan zuen Maxik.

–Buuuu!! –egin zuen Bil el Botasek.

–AAA!! –oihu egin dugu.

–A, zu zara Bil el Botas –esan zuen Maxik.

Eta hala izan bazan, sar dadila kalabazan.

XXXIX.  
Madalen  
Sariak





## MAITASUNA

Nire gaueko ametsak,  
zurekin dira.  
Nire begiraden gunea,  
zure begiak dira.  
Nire gaueko argia,  
benetan, zu zara.

Matematikan, nire  
konponbidea.  
Fisikan, nire betiko  
grabitatea.  
Nekazaritzan, nire  
lur maitea.

Argitzen duzu nire  
ilunabarra.  
Zu zara nire gaueko  
izar ederra.  
Nire argia zara,  
nire izarra.

Zurekin nagoenean,  
zer esaten dut?  
Ezer. Ez dut ezer esaten.  
Horrela da, bai.  
Nik, maitasuna, askotan  
sentitzen dut.

Maga



## ERRUDUNAREN BIDAIA

Zergatik errudunak  
Zintzotasuna ordea,  
etzanda hausnartzen du  
egia onartu gu geu  
buruari lotuta.  
garen nortasunean.

Zer da erruduna,  
Azkenean egiak  
zertarako esan  
erruduna egingo  
errua duzula.  
zaitu libertadian.

Epaiketa batean,  
Zer ikasi erruaz,  
nola jokutzen da  
erantzuna zeure  
epaimahaia entzutean.  
adimena eredua.

Urduritasuna,  
Zenbatetan zuk  
gezurra esatera  
errua leporatu  
bultzatzen gaituna.  
edo sentitu duzu?

Elabe



## NATURA MAITEA

Nire natura maitea,  
zure koloreak lasaitzen,  
mendiko haize goxoak,  
nire belarriak laztantzen,  
zure isiltasun argian,  
nire bihotza doa kantatzen.

Nire natura maitea,  
zure argiak pozten nau,  
nire mendiak esanda  
barreak ateratzen zaizkit,  
zure bake handiaren  
nire bihotza dabil "tau"

Eta zu ikustean berriz  
eguzkiak egiten du "tin"  
eta zu entzutean bizkor  
hodeiak egiten du "flis"  
eta zu ukitzean arin  
haizeak egiten du "zin"

Zu agertzean nik  
bihotzak egiten du "pam"  
eta zu igartzean  
izotzak egiten du "kra"  
eta zu maiatzean "tam"  
mundua hasten da

Laiyus



## KATTALIN

Orain dela pare bat urte, kardantxilo txikiak oraindik ez zekien hegan. Saltoka jarraitu zion bere amari, kale hartako, ixkin hartako, eskaileretaraino. Txoritxoak lurreko hazitxoei jarraitu zien eta haiek, Kattalinengana eraman zuten. Kattalin andre zahar bat zen, inork ez zekien benetan zenbat urte zituen. Ile-urdin nahasi haiek betiko moñoan jasota eramaten zituen eta haren begi urdin, argi, distiratsu haiek beldurra ematen zieten ume askori. Kattalinekin ez zuen familiarik, ezta lagunik ere; txoriekin egiten zitoen konpainia, txoriak ziren haren lagunak. Nahiz eta jende askori beldurra eman, bihotz onekoa, eskuzabala eta egiazalea zen, eta beti eramaten zituen hazi batzuk artilezko beroki zahar baina goxo hartan, txoritxoren bat aurkitzen bazuen ere. Txoritxoak, eskailera haietatik gertu zegoen intxaurrendoko bateko kabian bizi zen, haren amak, nahita egin zuelako kabia gertu, Kattalinengandik gertu egoteko. Inguruko txori guztiek maite zuten. Kattalinengana iristean, esku zimurtua pasa zion burutik eta ahots goxo batekin, esan zion:

–Ongi etorri. Zu lasai, hemen salbu zaude, nirekin salbu zaude.

–Txi, txi! Txi, txi! –inork ez ditu animaliak ulertzen, ezta txoriak ere, baina ematen zuenez, Kattalinentzat “eskerrik asko” bat izan zen hura.

Handik aurrera, amak egunero eramaten zuen txoritxoak emakume zaharrenek, eta behin bidea ikasita, bera bakarrik joaten zen. Oso ondo pasatzen zuten eta barre asko egiten zuten. Tarteka, txoritxoak, pozaren pozez, txapela buruan ibili munduan aritzen zen eta horrelakoetan, Kattalinekin lasaitu egiten zuen. Beste inor ez bezala maite zuen txoritxo hura.

Udaberri hura azkar pasa zen, ia-ia uda bezain azkar, eta udazkena iritsi zen. Jada zuhaitzak laranjak eta marroiak bihurtzen ari ziren, eta pixkanaka, biluzten. Hala ere, txoritxoak Kattalinengana joaten jarraitzen zuen eta euria egiten zuenetan blai eginda baina eskaileren ondoko aterpetxo batera iristen zen. Goiz euritsu batean, txoritxoak, esnatu eta Kattalinengana joango zenean, bere ama ikusi zuen, han, urrutian, hegan. Segituan konturatu zen migrazioan zihola. Bere hegotxo hori eta beltzak astindu zituen hegan egiten saiatzen bezala, baina ez zuen lortu. Gainera, ordurako bere ama urrutian zegoen, negua pasatzeko leku beroren baten bila, eta ez zuen ikusten. Ahalik eta altuen egin zuen txio, baina esan bezala, ama urruti zeukan, eta ez zuen entzun. Ahal bezain azkar (eta ahal bezala) jaitsi zen intxaurrendotik, eta saltoka joan zen Kattalinengana. Iritsi zenean aterpean aurkitu zuen andrea, haren zain bezala. Bat-batean zera pentsatu zuen: “Nola esango diot Kattalini ama migrazioan joan dela?”. Segituan izan zuen erantzuna; zerura begiratu zuen:

–Zer? Zer gertatzen da? –galdetu zion Kattalinekin kezkatuta. Bat-batean txori multzo bat ikusi zuen hegan–. Ez da hori zango...

–Txi, txi!

Kattalinekin, ordurako ulertu zuen ama migrazioan joan zitzaiola. Eta bera zergatik ez ere bai:

–Zuk, hegan ikasi behar duzu –esan zion serio–. Eta ikasiko duzu, nik lagunduko dizudalako.

Hurrengo egunetan, altura baxuetatik salto egiten probatu zuten, egunero pixka bat altuago jarri. Azken eskaileratik salto egingo zuen egunean, beldurtuta hegoak astindu zituen eta hegan hasi zen. Biak poz-pez zeuden. Hurrengo neguan bera ere joan zitekeen!! Neguaren gelditzen zen zatia hegan pasa zuen txoritxoak; hegan, eta hegan eta hegan.

Udaberria ere iritsi zen eta loreak hazten hasi ziren. Egun nahiko bero batean intxaurrendoko atzean uzten ari zela, bera ez zen txio bat entzun zuen. Aterza begiratu eta hantxe aurkitu zuen migrazioetik bueltatu zen bere ama. Besarkada batean bildu ziren, eta txoritxoak garatu zituen hegaldiak erakutsi zizkion. Gero, Kattalinengana joan ziren biak eta bera ere oso pozik jarri zen. Eta pozaren bitartez, egunak azkarrago pasatzen direnez, urtarok ere bai; eta berriz ere udazkena iritsi zen. Hostoen kolorea aldatzen zihon heinean, batzuk lurrean bukatzen zuten eta migrazioarako prestatzen hasi beharko ziren. Urte hartan bai, txoritxoak ere joango zen. Entrenamendu batzuk egin ondoren, joateko eguna iritsi zen. Bai Kattalin bai txoria triste zeuden “agur” esan beharko zutelako. Besarkada luze baten ondoren, taldea hegan hasi zen.

Hilabeteetako kontua izan zen, eta txoritxoak oso ondo pasa zuen. Lagun asko egin zituen, barre asko egin zuten... Baina bat bera ere ez zen Kattalin bezalako laguna, inoiz ez zuen Kattalinekin bezain beste barre egin. Faltan botatzen zuen. Eta baita eskailerak ere. Eta aterpea. Baita intxaurrendoko ere. Bere herria botatzen zuen faltan. Migrazioetik bueltatu zenean, nekearen nekez, ezin izan zuen Kattalin bisitatu, gainera bere amak ez zion utzi. Hurrengo egunean, hegoak berri indartuta, kale hartako, ixkin hartako, eskaileretara joan zen.

Eta espero ez zuen zerbait aurkitu zuen: uso piloa zerbaiten ginean jaten. Zerbait hori ez zen izango... ba bai. Kattalinen artilezko berokia han botata zegoen. Baina Kattalin ez. Uso guztiak uxatu eta, berokian sartu zen goxo-goxo. Eta zain geratu zen. Zain, zain eta zain. Tarteka ama etortzen zitzaien, janari pixka batekin eta intxaurrendora bueltatzeko esaten. Baina txoritxoak ez zen mugitzen. Denbora luze bat zain egon ondoren, konturatu zen, Kattalin ez zela bueltatuko eta berokitik altxa zenean, azpian zerbait zegoela nabaritu zuen: Hazi poltsa bat zegoen, eta paper bat ere bai. Hauxe jartzen zuen paperean: “K+T”. Hazi poltsa hartu eta beroki gainean jarri zuen paperarekin batera. Ondoren, intxaurrendora bueltatu zuen eta intxaurrendoko hartu zituen. Haiekin batera hegan hasi zen eta beroki gainean geratu ziren. Haien laguntasunaren oroigarri hantxe geratu ziren: Kattalinen berokia, hazi poltsa, papera eta txoritxoaren bi intxaurren.



## GAZTELUKO ITZALAK

Arrainak igeri egin baino lehen, ba omen zegoen Erkules izeneko gizon ilehori eta altua. Askok esaten zuten baratxuria baino finagoa zela. Alaia ere bazen, jatorra izan arren. Egun batean, bere inmobiliariara joan zen bere jefea esan ziolako Veneziara joan behar zuela, eskola abandonatu bat botatzeko. Eta hurrengo egunean joan beharko zela. Erkulesek notizia entzutean berehala bere etxera joan zen maletak egitera. Dena bere maletetan sartua zeukala baieztatu orduko, bakoitza esku batean hartu eta martxan hasi zen, bere lagunari agur esan ondoren. Hasteko, karruaje bat hartu zuen eta lehendabiziko Veneziako ur litroa ikustean txalupa txiki bat erosi zuen. Bere maletak txalupa txikian utzita ikastola abandonaturantz joan zen.

Iritsi zenean, bloke erraldoi bat zen uraren gainean leiho txiki askorekin horma granate handietan. Txalupa txikiarekin aterantz hurbiltzerakoan atean zegoen ikastola handiaren jabea, bere izena "Strocho" zela. Strochok atea ireki eta Erkulesek ate inguruko egurrezko zutabe batean lotu zuen bere txalupa, gau osoa hor pasatzeko inongo federik gabe. Eskolaren jabeak gizon jatorra zirudien, baina bere begi inguruetan zain beltzak nabariak ziren. Gizona ezaquitu zuenean gure protagonistak isatsdun jantzi dotore bat zeukan eta bere eskuak oso finak iruditu zitzaizkion. Eskola abandonatura sartzen zeuden bitartean beraien zapaten hotsak geroz eta sakonagoak zirela iruditzen zitzaion Erkulesi marmolezko lurrakatik. Pasilloetatik aurrera eta eskubi-ekzer egin ondoren gela nagusi batera iritsi ziren. Mahai borobil handi bat zegoen, 2 plater, oilaskoa eta ur basoekin gelaren erdian. Ondoren Strochok eskua luzatu eta esan zion: –Afaltzeko gogo bai?

Eta Erkulesek pareta batean bere bizkarra apoyatuz buruarekin gora eta behera egin zuen. Strocho aulki akoltxonatu batean esertzerako Erkules konturatu zen ate batean zegoela apoyatuta eta handik kendu baino lehen atea ireki eta atzeraka erori zen bere maletak lur hotzera eroriz. Erori zen gela, liburutegi handi bat zen ohe batekin ixkinean. Zerbait esan baino lehen Strocho aurreratu eta esan zion: –Hori zure gela izan liteke, nahi baduzu zure pertinentziak hor utzi ditzakezu, eta ondoren afaltzera joango gara.

Erkulesek Strochori kasu egin eta bere maletak ohean utzi zituen. Boteprontoan Strochorengana joan zen afaltzera. Hasteko oilasko ixter bat hartu eta ura edan zuen. Gonbidatuak itxaron egin zuen eta biak bukatzerako ohera joan zen, oso jatorra iruditu zitzaion gizona eta lo egiten saiatu zen. Konturatu zen ezin zuela lo hartu eta liburu txiki bat hartu zuen irakurtzeko. Irakurtzen hasi zenean dena oso lasai zegoen. 3. orrialdera iritsi zenean liburu hori kondairena zela konturatu zen eta "Cruchio", Erkules konturatu zen horietariko bat zela Strocho. Aurpegia berdetik morera eta moretik zurira pasa zitzaion 5 segundotan, liburuko deskribapenak perfektuki enkajatzan zuelako Strochorekin: esku finak, begien inguruan zainak...

Irakurtzen gelditu ezinik gehiago irakurri zuen eta atala bukatzean deseatu izan zuen irakurri ez izana. Cruchioak milioika urteko izaki mitologiko famatuak dira. Fama hori lortzen dute pertsonen begiak jaten. Hasteko begirada konektatzen diote beraien harrapakinari, beraien begi hipnotikoekin beraien harrapakinaren begiak estutu eta atera egiten dizkiete. Behatzekin begia zulatu eta jan egiten dute. Erkules azeria baino azkarrago konturatu zen bera zela Strochoren harrapakina.

Gau horretan ezin izan zuen lo hartu eta hurrengo egunean Strochorekin gosaldutik ondoren liburua irakurtzen jarraitu zuen. Cruchioak hiltzeko gauza bakarra da harri berezi bat; kontinente bakoitzean bat dago eta berez horia dela esaten da. Erkules inoiz baino trixteago zegoen eskolatik burua beheara zuen eta sarrerara hurbildu, eta beraren susmoak egia bihurtu ziren: itxia zegoen Strochorekin.

# GAZTELUKO ITZALAK

Bere gelara itzultzen ari zela koadro bitxi bat ikusi zuen. Ikastolako mapa zirudien eta Erkulesek begiratu bat bota ondoren bere sakelako labana atera eta mapa babesten zuen kristala apurtu zuen, mapa eskuan hartu aurretik. Kontua da ikusi zuela harri horren marrazki bat gela batean zegoela jartzen zuela eta lortu egin behar zuen. Bere gelan zegoela ideia bat bururatu zitzaion, bere lagunarekin hitz egitea posta bidez. Orria hartu eta idazten hasi zen, gertatu zitzaizkion guztiak. Ate handirantz hurbildu, eta postariari gutuna eman zion. Hurrengo egunean ordu berean eskolako atean zegoen postariari itxoiten eta irixtean eskua luzatu eta postariak atearen beste aldetik zulo txiki batetik pasa zion karta. Bere gelara igo eta irakurtzen hasi zen, eta hau irakurri zuen:

Kaixo, Erkules: Zure lagun Arturo naiz. Zure gutuna irakurri ondoren banekien ze ikastolaz hitz egiten ari zinen. Burunkio ikastola. Ikastola hori munduko ezagunenetako bat da bere ixtorioagatik. Ixtorioak dio gerra garaian umeak ikasten zeudela eta irakasleak banan-banan joaten hasi ziren. Konturatzerako ikasleak bakarrik zeuden eta eraikina sutan zegoen. Suaz konturatzerako ateak itxiak zeuden eta ikastola horretan daude haur horien izpirituak. Orain esaten da ume horien izpirituak eraikinean daudela eta hiltzen utzi zien zuzendaria ikustean hil egingo dute. Segur aski Strocho hori zuzendaria da eta gauero gelaz aldatzen da umeen izpirituak ez aurkitzeko eta hiltzeko. Besarkada bero eta gogor bat Arturo.

Erkulesek ez zuelako gauza horietan sinesten erabaki bat hartu zuen, bere despatxora joatea. Segituan aurkitu zuen eta sartu egin zen. Harriaren bilaka hastean bat-batean bere atzean kolpe bat entzun zen. Harria erori egin zen apal betetik! Segituan labana atera eta harria ikutu zuen ziurtatzeko ea segurua zen. Joatean, ez zekien bere sakelako labana han ahaztu zuela. Bazkaritan inork ez zuen ahoa zabaltu jateko ez balitz. Bazkaria bukatu ondoren Erkules bukaeraren hasiera pentsatzen hasi zen. Afaritan zutabe baten gainean itxarongo zuela erabaki zuen. Eta ZAZT! Harria botako zion eta ondoren leihotik aterako zen. Gaua erortzean bera bere postuan zegoen Strochori itxoiten. Gehiago itxaron gabe Strocho aulkian eseri orduko harria bere indar guztiekin bota zion. Bere sorpresarako deabruak buelta eman eta harria eskuan hartu zuen. Erkules konturatu zen, harria heltzen zuen lekuan ke pixka bat zeriola. Eta behatz bat mugitu baino lehen, Strocho bere zutabe berera igo zen salto batez. Strocho aurreratzean Erkulesek ahaztutako labana atera eta ixterean zauri bat egin zion. Baina hori ez zelako nahikoa Erkules botatzeko hankarekin bere hanka jo eta Erkules baldosetara erori zen. Strocho salto batekin jaitsi eta Erkules lepotik hartu zuen lurraren kontra. Begirada zulatu zionean Erkules konturatu zen bere bukaera zela. Pixkanaka bere begiak tentsatzen zeudenean Strochok bat-batean zauri bat jaso zuen esku muturrean. Biak aho zabalik geratu ziren. Jarraian bere bizkarrean zauri handiago bat jaso zuen. Strocho altxatu egin zen eta zauri gehiago jasotzen hasi zen. Ematen zuen 100 txakur bera zauritzen ari zirela txandaka baina beraiek ikusezinak zirela. Erkules konturatu zen ikastolako haurrak zirela eta zuzendaria aurkitu egin zutela eta hortaz pixkanaka hiltzen ari zirela. Erkulesek laguntzeko lurretik harria hartu eta buruan inkrustatu zion. Gehien harritu ziona zen, odol beltza atera zitzaiola eta harria inkrustatzean bere harridurarako mugitzeaz gelditu zen. Ondoren 2 pauso atzera eman eta paretako bidriera erraldoi baten kontra jo zen eta puskatu egin zuen. Erorketa ikusten ari zela ezustean, Strocho txalupa uztekoaren kontra jo eta zutabeak erdituk zeharkatu zuen.

Erkulesek hori ikustean lasaitu izugarria hartu eta atzerantz joan zen. Hortik nola atera pentsatzen ari zela mahaiko mantela ikusi eta ideia bat bururatu zitzaion. Mantela mahaitik kendu eta lanpara batean zintzilikatu zuen. Beste muturra leihotik atera eta maletak hartu zituen. Maletak esku batean edukita bera beharuntz jaitsi zen oihala soka bezala erabiliz. Txalupara iristerako maletak utzi eta bere etxerako bidaian hasi zen.

Klink



## ROSI ETA EMI

Duela hilabete batzuk, festa batean mutil bat ezagutu nuen. Martin deitzen zen, telefono zenbakiak elkarri Bazen behin, Emma izeneko haur txiki bat. Emma lotsatia eta beldurtia zen. Haurra bere amarekin bizi zen, baina egun batzuk amonaren etxera joan behar zuen. Bi urte ziren amona ikusten ez zuela. Amona bi urte horietan asko aldatu zen, batez ere, esan ziotenean alzheimerra zuela. Bere amonak Rosa izena zuen eta lasaia eta sentibera zen.

Iritsi zenean amonaren etxera joateko eguna, Emma oso urduri eta kaka praketan zuela ibiltzen zen.

Neskatxoa bere amarekin amonaren etxean zegoenean, amona Rosak uste zuen lapurtzera etorri zirela eta oihuka hasi zen. Rosaren etxea laku baten ondoan zegoen. Orduan, haurrak amari honela esan zion:

–Ama ama! Lakura joan naiteke?

Amak baiezkua egin zion buruarekin. Orduantxe Emma lakura pozik joan zen. Txikia lakura iritsi zenean, harri bat hartu eta txipi-txapa egiten saiatu zen. Baina, bapatean, atzetik ahots bat entzun zuen. Buelta eman eta bere adineko neska bat ikusi zuen.

–Txiki-txapa ez da horrela egiten –esan zion neska arraro horrek. –Ni Rosi naiz –esan zion.

–Ni Emma –esan zuen Emmak harrituta.

–Zu eta ni lagunak izango gara –esan zion Rosik segurtasunarekin.

–Lagunak? –galdetu zuen harrituta.

Emmak iluntzen ari zela ikusi zuen.

–Joan beharra daukat, nire ama itxaroten ari zait –aitortu zuen Emmak.

–Ondo da, bihar hemen eta ordu berean geratuko gara, bale? –itzuli zion bere lagunak.

–Bai.

Eta etxerantz joan zen. Etxera iristean, bere amak mahaia jartzeko esan zion bere alabari. Baina haurra mantelen bila ari zenean, Rosiren argazki bat ikusi zuen, bere amona Rosaren etxean. Momentu horretan, Emma harrituta gelditu zen eta zerbait susmagarria ikusi zion bere amonari.

Hurrengo egunean, ordu berean eta toki berean gelditu zen Rosirekin eta horrela egun guztietan. Baina Emmaren azkeneko eguna ere iritsi zen, eta azkeneko egunean, Emma txipi-txapa egiten saiatzen ari zen lehenengo egunean bezala, baina ez zitzaion ateratzen.

–Denbora gehiago geldituko bazina ondo aterako litzaizuke –esan zion Rosik Emmari.

–Ezin dut, hirira bueltatu behar dut –aitortu zuen Emmak.

Rosik hori entzutean, lurretik harri bat hartu zuen.

–Begira, zuretzako, nirekin gogoratzeko hirian –eta harria eman zion Emmari.

–Eta zu nirekin gogoratuko zara? –galdetu zion Emmak Rosiri.

–Noski Emi! Lagun onenak gara –esan zuen Rosik, eta besarkada handi bat eman zioten bi haurrek elkarri.


Orduan, Emma amonaren etxera joan zen amona agurtzera. Eta Emmak bere amona ikustean besarkada handi bat eman zion. Eta Rosik emandako harria eman zion, Emmak, bere amonari.

–Agur Rosi –esan zion Emmak amonari.

–Agur Emi –erantzun zion amonak.

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan.

Bihotza



XXXIX.

**Madalen  
Sariak**



## BOST ZENTZUMEN, KRISKITIN BAT

Kriskitinak ditut bihotzean,  
segituan dantzan hasiko dira.  
Hurbildu zaitez eta dantzatu,  
segundu batez bada ere,  
gainerako arazo guztiak ahazteko.

Ikusmenak pizten du eguneko lehen txispa,  
goizeko eguzkiaren argi-izpiak  
kriskitinak kolore biziz jantzi  
eta argiz betetzen du ingurua,  
poza zabalduz gure herrian.

Usaimenak mugiarazten du gure barneko hotsa,  
goizaldean ihintzez estalitako loretan,  
pausatzen dira segundu batez kriskitinak;  
goza ditzagun usain gozo zein garratzenak,  
aspaldiko oroitzapenak aske utziz.

Ukimenak gure azalean marrazten du bidea,  
haizearen fereka leun eta bare bakoitzak  
kriskitinen azal fina laztandu eta lasaitzen du:  
gure azalean dardara baten bidez,  
bizitzako momentu bakoitza sentitzeko.

Entzumenak dakarzkigu oihartzun urrunak,  
kriskitinen kolpe bakoitzak  
kantu bizi eta alai bihurtu:  
taupada bakoitzak erritmoa sortuz,  
barneko poza pizten dute.

Dastamenak bizitzako gazi-gozo zein mikatzak ekartzen dizkigu gogora,  
mingain puntan kriskitinen erritmora  
dantzan dabilta oroitzapen eta zapore bereziak:  
probatu ditzagun zapore berriak,  
zapore bakoitzak bere lekua aurkitzen duen bitartean.

Bost zentzumenak kriskitin bakarrean,  
haien erritmora dantza zoroan ibili gaitezen.

Behi euskalduna



## JAINKOEN DIHARTZUNA

Olinpoko tontorrean  
haizea dantzan dabil,  
eta zeru urdin sakonean  
tximista baten distira sumatzen da.

Itsasoaren bihotzean,  
uhin bakoitzak sekretu bat gordetzen du,  
eta ur gazien artean  
tridente baten itzala mugitzen da isilean.

Itsasoan apar zuritik jaikia  
maitasunaren distira darama begietan  
bihotzak su bihurtzen ditu  
irribarre bakar batez.

Burutik sortu zen,  
pentsamenduaren tximista bezala,  
armadura distiratsua  
jakinduria eta estrategia daramatza eskuetan.

Olinpoko erregina harroa,  
zeruaren azpian aginte sendoz  
ezkontzaren eta leialtasunaren sua,  
etxeen barnean pizten du, erregina da.

Ibaiaren ertzean,  
bihotzak zaintzen ditu,  
gizaki eta arimen babesle,  
betiko itxaropenaren iturria.

Eguzkia goizean jaio eta mundua berotzen du,  
argiak, harriak eta itsasoa kolorez betetzen ditu.  
Zeru zabalean hegan, bizitzaren gida,  
munduaren begia eta energia sortzailea.

Hilerriaren iluntasunean,  
itzaletan dantza egiten du,  
arimak bide argian gidatzen ditu,  
itzala eta misterioaren zaindaria.

Zerua eta desertua batzen dira,  
izpia eta ura, eguzkia eta itzala,  
Olinpo eta Niloren indarrek topo egiten dute,  
jainkoen borroka betiko, izarretan idatzita.



## TAUP-TAUP

Zure presentzia beroa da  
manta goxo bat bezalakoa,  
zure begi urdinen distirak  
itsasoaren olatuak ekartzen dizkit burura.  
Haizeak zure izena marrazten du  
eta nire bihotzak isilean taup-taup egiten du,  
lzarrek baino distira handiagoa duzu  
nire gau ilunetan.  
Zure irribarrea koloretsua da  
ortzadarra bezalakoa,  
zure ahotsa nire abestirik gogokoena da,  
zu zara egunero entzun nahi dudana melodia.  
Zure pausoek nire bidea marrazten dute,  
eta nik atzetik jarraitzen dizut.  
Hodeiek zure gorputza irudikatzen dute zeruan  
artelan bat bezala,  
zure isiltasunak ezetz esaten du  
baina zure begiek baietz.  
Zure bihotzak ere taup-taup egiten du  
baina ez da nire taup-taup berdina.  
Nire pentsamenduetan bizi zara egunero  
nire hitzetan agertzen zara  
eta nire ametsak sortzen dituen pertsona zara.  
Zurekin bizitza poesia bihurtzen da,  
ederra, lasaia, eta zoragarria,  
zure izena entzuten despistatuta bizi naiz,  
lehenengo aldiz ikusi zintudanean  
eztanda bat bezalakoa izan zen.  
Zu nire lorea zara eta ni zure petaloak.  
Zu nire erlea eta ni zure ezia.  
Itsasoa bezala maite zaitut  
eta ni zure olatu galdua naiz.

Liliput



## AGURRA

Esan beharko litzateke ikusaldi hura ez zela normala. Bi nerabe banku batean eserita, aurrera begira, hitzik esan gabe, estatuak bezala, ezezagunak izango balira bezala. Beraien begirada galduak pentsamenduen barruan murgildurik. Eta oraindik sentitzen zen, ikusten zen, lagunak zirela edo behintzat ezagunak. Bata bestearen ondoan eserita, Agnes Silver eta Ally Nightingale zerbait itxoiten ari ziren tren geltoki zatatsuan.

Allyren begirada mugitu egin zen bere lagunarena bilatzen. Eta momentu hartan izan zen, orduak eta gero, beraien begiradak gurutzatu ziren lehenengo aldia. Bistan zegoen ez zeudela alai, ezta triste ere, baizik eta nostalgiko. Bakoitzak bere barnean pasatako orduak gogoratzen zituen, bizitutako abenturak, negarrak eta barreak, besarkadak eta kolpeak, dena. Ez zuten hau gertatzea espero, ez zuten hau gertatzea nahi. Txikitatik ez, baina bai betidanik batera egon ziren herri txiki hartan, izkina guztiak zeharkatuz, mendietara igo eta gaua ondo sartuta egon arte kalean hitz egiten, amesten. Eta orain, urteak pasa eta gero, adiskidetasun hori segur aski betirako ezabatuko zen. Agnesek herritik joan behar zuen hirira, beste bizitza bat hastera bere gurasoekin, eta Ally, ordea, herrixkan geldituko zen, bere arima Agnes berriro bueltatuko ote zen itxaroten.

Ez zen hitzik atera beraien ahoetatik, baina esaten den bezala, begiek ez dute gezurrik esaten.

Handik gutxira trena iritsi zen, eta zarata bikoiztu egin zen: jendea igotzen eta jaisten, agurrak eta ongietorriak. Baina nerabeak ez ziren mugitzen. Orduan, minutu batzuk eta gero, Agnes bankutik altxa eta maleta eskuartean atera hurbildu zen. Allyren begiek bera jarraitzen zuten, esperantzaz beteak zeuden. Une berean Agnesek bira egin zuen eta korrika batean Ally besarkatu zuen, malkoak bere begietatik irristatzen zirelarik. Trenak azken abisua eman zuen eta Agnesek sartu egin behar izan zuen. Bere eserlekuan eseri eta leihotik begiratu zuen. Allyk han jarraitzen zuen, bera agurtzen irribarre txiki batekin, bere begiak malkoz beteak zituelarik. Poliki, trena mugitzen hasi zen, eta hori izan zen bi lagunek elkar ikusi zuten azken momentua.

Ez zen hitzik entzun, baina ekintzek hitzek baino askoz gehiago esan nahi dute.

Don Simon



## JARE... NON ZAUDE?

Kafearen beste trago bat hartzen dut sarrerako ate nagusira hurbiltzen naizen bitartean. Barrura sartu bezain laster inguratzen nauen berotasunak kanpoko hotzarekin kontrastatzen du.

–Mara! –giltzak mahaian utzi eta gero neska txiki bat nire besoetara botatzen da.

–Kaixo, Jare, zer moduz?

–Oso ondo, egon naiz arratsalde osoa pampina berriekin jolasten. Orain feriara goaz, ezta?

–Bai, txiki, baina lehenik zerbait jan.

–Horretan igo ahal naiteke? –galdetzen dit nire ahizpak feriatzen sarrera pasa bezain laster.

–Bai.

–Baina lehenik karruselera, nire gustukoena da eta gogoratu joan baino lehen txurroak erosi behar ditugula.

–Zuk agintzen duzuna, nagusi –erantzuten diot ahotsa aldatuz.

Karusela biraka hasten da, Jarek bere zalditik barrez agurtzen nau. Musikak berdin jarraitzen du, umeak barrez, gurasoak hitz egiten... Nire ahizpa txikia bilatzen dut begiradarekin, baina gora eta behera joaten diren zaldien artean ez dago inor.

–Jare?

«Agian lekuz aldatu da», «agian makurtu da», «agian...».

–Jare?!

Ez dago erantzunik, ezer ez. Karrusela gelditzen da eta umeak beren gurasoengana joaten dira, baina bederatzi urteko neskatarik ez.

–Jare, txikitxo!

Ezer ez.

Korrika hasten naiz atrakzioen artean; malko batzuk nire masailetik erortzen dira; bularra sutan daukat, baina ezin naiz gelditu.

–Jare, non zaude?

Feriatik irteten naiz ia konturatu gabe. Eskuak dardaka ditut giltzak bilatzen ditudan bitartean. Ia ez dut ikusten, ia ezin dut arnasik hartu. Korridoretik nabil, pauso bakoitza aurrekoa baino motelago.

Etxea lehen bezala dago, baina hotza, hutsik.

–Jare... Non zaude?

Lurrera erortzen naiz eta malkoek nire begiak betetzen dituzte. «Agertuko da» esaten diot nire buruari.

–Lasai, Mara.

Atzean dudan ahotsak odola hozten nau. Hain motela, hain leuna, hain lasaia.

Nire atzean dago, gogoan nuen bezala.

–Ama? –nire ahotsa hautsi egiten da.

–Jare nirekin dago, maitia, atsedena hartu, txikitxo.

–Ez... Zu ezin zara hemen egon... –bere begirada une batean guztiz aldatu da.

Poliki-poliki nire ondoan belauniko jartzen da eta nire belarrira hurbiltzen da.

–Mara... Beti galtzen duzu... –xuxurlatzen dit.

–Ez... Ama, ez esan hori –erantzuten diot ahots hari batean.

–Bai laztana, duela hiru urte berdina gertatu zen eta dena zure erruz; gizon hura gelditu bazenu, oraindik haren egongo zen. Ni hil ondoren ardurasuagoa izango zinela uste nuen...

–Ez zen horrela gertatu.

Nire ama begiratzen dut negarrez jarraitzen dudana bitartean.

–Bakarrik 6 urteko neskatoa zen Mara, ez zuen merezi eta zuk ez zenuen ezer egin.



## OROITZAPENAK

Baziren behin bi anai-arreba elkarrekin bizi zirenak txikitatik. Alex eta Claudia. Baina egun batean liskar handi bat izan zuten eta beste leku batera bizitzera joan ziren. Claudia Chicagora eta Alex, berriz, New Yorkera joan zen bizitzera. Bi anai-arrebei irakurtzea asko gustatzen zitzairen, egunero ateratzen zuten irakurtzeko denbora.

Leku horietan urteak pasa ondoren liburutegi berezi batzuk ireki zituzten. Horko liburuak berezi samarrak ziren, orri txurikoak ziren eta istorioak ez zeuden idatzita, imaginazioarekin idazten ziren. Jendeak imajinatzen bukatzen zuenean liburuak txuri bihurtzen ziren eta imajinatutakoa desagertzen zen.

Claudiak Chicagoko eta Alexek New Yorkeko liburutegiak aurkitu zituztenean pentsatu gabe etxetik atera eta hara abiatu ziren. Liburutegira iritsi ondoren liburu bana hartu eta harrituta gelditu ziren ikusi zutenarekin: liburu bat orri txuriek!

Liburuak "Oroitzapenak" izenburua zuen. Alexek nahi gabe eskua liburuko orri txurian jarri zuen eta liburuan hitzak eta marrazkiak ateratzen hasi ziren, baina liburu horiek bereziak ziren, momentuan pertsona batekin gogoratutako gauzak beste pertsonaren liburuan ere agertzen ziren.

Alex Claudiarekin bizitu zituen momentu guztiez pentsatzen ari zen eta Claudiaren liburuan agertzen ziren, eta Claudiarekin berdina gertatzen zen. Claudiak Alexekin bizitako momentu guztiak gogoratu zituen. Eskua paper txurian jarri eta oroitzapenak liburuan islatu ziren.

Bi anai-arreben istorioak oroitzapen batean korapilatu ziren eta biek gorputzetik zerbait berezia sentitu zuten, barkatzeko beharra. Baina inoiz ez zuten ahaztuko gertatutakoa.

Orduak pentsatzen pasa ondoren biak etxera joan ziren eta liburutegian gertatutakoa ezin zuten ahaztu. Harrituta zeuden liburuak hain bereziak izateagatik eta gero, eskuak kendu ondoren, dena desagertzeagatik.

Egunero gorputzeko sentimenduaz pentsatzen zuten eta gehiago pentsatu gabe hitz egin nahi zuten, baina ez zuten aurkitzen biek ahal zuten eguna.

Asteak pasa ondoren aurkitu zuten eguna eta hitz egin ondoren eta beraien sentimenduak kontatu ondoren elkarri barkatu zioten. Leku berri batera joan ziren elkarrekin bizitzera eta irakurtzen jarraitu zuten.



## SUNTSITURIKO AMETSAK

Esnatu berria naiz,  
dena berdin dago  
beste egun bat da  
sukaldean sua piztuta, zuloa horman  
komunean urik ez, zuloa horman.

Leihotik ke usaina sartzen da,  
eguzkia hauts artean jaikitzen da.  
Kaleko isiltasuna oihuka ari da  
nire oinetakoak atzo baino zaharragoak dira.

Ogia zatika banatzen da,  
irribarreak ere bai,  
inora joateko bidea luzeagoa da,  
inoiz bukatzen ez den korrikaldi bat bezalakoa.

Zerua ez da zeru.  
Nire arrebak desagertu dira  
amaren malkoak aspaldi bukatu dira  
aitaren eskuak dardarka.

Sukaldeko sua ez da nahikoa  
bihotz barruan dugu hotza berotzeko.  
Kanpoan hormak apurtzen dira  
barruan ametsak bukatzen dira.

Jolastu nahi nuke  
baina lurra ez da jolastokia.  
Lagunekin egon nahiko nuke  
baina lurra odolez beteta dago

Bizia zegoen tokian,  
orain ez dago ezer.  
Bakarrik oihuak entzuten dira  
eta horrek sekulako beldurra ematen dit.

Iluntzean izarrak zenbatuko ditut,  
bakoitza falta den norbait da.  
Hegan doaz zerua zeharkatzen,  
hurren goak bueltan ekarri arte.

Hormako zuloa handiagoa da,  
gaua hotzagoa da,  
argia ilunagoa da,  
eta soinuak ozenagoak

Hegazkin hotsek esnatzen naute.  
Negarrek esnatzen naute  
zuk badakizu hau guztia isiltzen?  
Bihar berriz esnatzea espero dut.

Gor



## BAKARDADEA

Ez dakit zuri, baina niri bai,  
sentimendu arraro batek jaten dit barrena.  
Arraroa, ezberdina, berezia...  
Azaltzeko ezinezkoa dena.

"Ez dakit ezer, baina dena dakit"  
esaldi garrantzitsu hori gogoratzen dut.  
Badakit bakarrik nagoela hemen,  
igogailu hondatu baten barruan bezala,  
ez gora ez behe.  
Eta badakit ez dakidala ezer,  
nahasia nagoela,  
eta ez dudala ezer ulertzen.

Atzo babesturik eta jendez inguraturik sentitzen nintzen,  
neure burua aseturik ikusten nuen.  
Baina gaur, berriz,  
bakarrik, triste eta babesik gabe nago.

Sakelakoa begiratzan dut segundoro,  
ezer berririk jaso gabe.  
Geroz eta hutsago sentitzen naiz,  
bakarrik geratuko naizen beldurrez,  
ez didate ezer kontatzen.

Sakelakoa berriro ere hartu,  
txat-etan sartu eta ezer berririk ez.  
Orain, amorrua eta antsietatea dut barnean,  
haiekin hitz egiteko beharra.

Ezinezkoa da!  
Leku berean, bakardadean murgilduta nago egunero.  
Batzuetan jendartean sentitzen naiz  
beste batzuetan oihartzun zulo batean,  
baina berez beti konstante berean.

Hori guztia ahaztu  
eta amonaren esaldiak gogoratu ditut:  
"Dugun ingurunea da denon bilgunea,  
dugun ingurunea da denon lasaitasuna..."  
Bere hitzek lainoa desegin didate eta burua oskarbitu zait.

\*\*\*

Jada ez ditut mugikorreko izar ikusezinak,  
izar berriak ezagutu ditut,  
haien besarkadak sentitzen ditut,  
haien hitzak entzuten ditut,  
haien ondoan benetan babestua nagoela sentitzen dut.

Eta hauek bai, amonaren hitzak betetzen dituzte:  
"Lagunak izarrak bezalakoak dira,  
batzuetan ez ditugu ikusten  
baina benetakoak beti egongo dira".

Gosi



## GORPUTZIK GABE OIHUA IZATEN ARRAITZEN DUT

Larragako kaleek ez naute ahazten,  
gau hartako oihuen ondorioz.  
Txikia eta ameslaria nintzen  
lau gizon aitaren bila etorri ziren egunean.  
Ez zen nire gudua,  
baina hala ere aitari lagundu nion  
eta ez naiz damutzen.  
Lehenik nire zati bat lapurtu zidaten,  
maite dudan pertsona bahituz.  
Geroago nirekin hasi eta amaitzeko,  
imagina ezinak diren moduetan.  
Gau hartan galdu zen nere izena.  
Gau hartan lapurtu zidaten ahotsa.  
Gau hartan lapurtu zidaten arnasa.  
Gau hartan lapurtu zidaten bizitzeko eskubidea.  
Han akabatu zuten,  
ni bezalako ume baten ilusioa.  
Herrian gau hartako istorioak kontatzen ziren.  
Kaleetan guztiek hitz egiten zuten,  
nahiz eta batzuek egia jakin arren,  
isilik geratu ziren.  
Gau hartan otsoek jan ninduten,  
baina beraiek niri lapurtutako dena,  
gaur herritarrek itzultzen ari zaizkit.  
Nire izena mantendu dute,  
nire istorioa zabaldu dute,  
nik egindakoa inoiz ez galtzeko.  
Bukaera arte defendatuko naute,  
nik aitarengatik egin nuen,  
eta zuek nirengatik egiten ari zarete.  
Udaletxetik eta basotik dator nire oihua,  
eta ez du bukaerarik.  
Baina noizbait isiltzen bada,  
zuen ahoek egin beharko dute garrasi  
nire omenez.



## PUNTUA ETA KOMA

Ni beti pentsatzen ari nintzen, uste dut horregatik nagoela hemen. Bakarrik hitz egiteaz eta tonta iruditzeaz gain, eroa ere dirudit... Psikologoak norbaitekin hitz egitea gomendatu dit, ez nire buruarekin, eta uste dut gutxienez zurekin.

Zer izen jarriko dizut? Idaztea debekatu dit, baina irakurtzea ez. Nahi duzu azken gutuna irakurri?

Aitak kui bat oparitu dit eta orain berarekin hitz egiten ari naiz, baina egiten duen soinu bakarra ura edatean egiten duen urruneta moduko bat da. Begiak biratzen ditut. Hau alferrikakoa da, baina hala ere altxatzen naiz hartzeko leku honetan sartu aurretik idatzi nuen azken gutuna, gaixo usaina du. Ironikoa egia esan, ospitale batean nagoelako.

Egia esanda oso polita da. Animalia bere kaiolatik ateratzen dut eta nire belaunetan jartzen dut. Eta irakurtzen hasten naiz:

"Gramatika, puntua eta koma tarteko atseden etenaldi moduko bat da, ez da hain txikia koma bat bezala, ezta hain handia puntu bat bezala. Erabiltzen da bi ideiak konektatuak daudenean baina esaldi desberdinak izan daitezke.

Beste batzuentzat, batez ere beste esanahia ezagutzen dutenentzat, oso indartsua den zerbait adierazten du, aurre egiteko oso zaila den zerbait.

Berdin da berezkoa den zerbait, maite duzun norbaitengatik, zerbait entzun edo ikusteagatik. Zergatia ulertzeko hainbeste pentsatu duzu. Zergatik zuri? Zure gurasoek dena eman dizute... baina batzuetan kontrakoa da.

Inork ezin du guztiz ulertu bizi izan ez badu. Batzuetan, burua mugara iristen da gauza desberdinengatik...

Gizakiok akats gehiegi egiten ditugu, baina horrek justifikatzen al du norbaiti bizitza inposiblea egitea?

Nirea bullyinga izan zen, eta nire osasun mentala okerrera doa. Bullyinga aspaldi desagertu zen, baina oraindik oroitzapenak daude.

Lehen pentsatzen nuen neska horien errua zela, baina denborarekin konturatu nintzen ez zela inoren errua. Eta errudun bakarra ni izan behar nintzen. Neure burua ez defendatzeagatik, ez oihukatzeagatik edo laguntza ez eskatzeagatik.

Ez naiz nire buruaz beste egiten saiatu, ez literalki. Baina askotan pentsatu dut zer pasatuko litzatekeen hori egingo banu. Zer pasatuko da maite nauen jendearekin jakiterakoan ez zela istripu bat. Baizik nik nire eskuekin egin nuela.

Badago gai bat ez dudana hitz egin inorekin. Ez dakit norbaitek susmatzen duen, baina pentsatzeak deseroso jartzen nau. Batzuetan hori egiten dudanean pentsatzen dut direla tontakeriak, gauza okerragoak pasa ditudalako, baina nire buruak jada ez du pentsatzen egiten dudanean. Bakarrik ikusten dut odola erortzen eta hurrengo goizean esnatzen naiz eta ikusten dut desastre bat egin dudala. Ez dakit zer den okerragoa: desagertu nahi dudala jakitea eta inork ez ikustea, ala ikusten dutela jakitea eta hala ere beste aldera begiratzen dutela". Gutuna irakurtzen amaitu nuen. Burua jaisten dut nire laguntxoak ikusteko, irribarre egiten dut, aspalditik ez nuen hori egiten. Sartzen dut bere kaiolan, joaten naiz ohera eta geratzen naiz begiratzen ilargiaren argia sartzen dela leihotik.

Eta horregatik, laguntxo, dauzkat eskumuturrak bendatuta. Lehen kontatu dizut puntu eta koma baten metafora bat. Uste dut agian nire historia ez dela izan eten bat koma bat bezala eta oraindik ez da bere amaiera iritsi jartzeko puntu bat...beraz jarraituko du izaten, bakarrik, puntu eta koma bat; gabon, laguntxo.



## DUELA IA EHUN URTE ETORKIZUNA IKUSI ZEN PARISEN

Pablo inspirazio barik zegoen mihise txuri baten aurrean kokatuta, Parisen. Parisera inspiratuta joan zen (edo hala pentsatuz) baina bertan inspirazioa deseginda aurkitu zuen, zatika balego bezala, lurretik sakabanatuta, desorekan.

Hirugarren mihisea margotzen hasteko zegoenean konturatu zen zerbait handiagoa behar zuela. Euskarri handiagoa, gutxienez tamaina hirukoitza zuena. Hara, atera zen Pablo hoteletik eta abiatu zen arte dendara, Parisera etorri zenean sentitu zuen inspirazio antzekoa sentituz, indartsu. Eta hara, iritsi zen artista hoteleko logelara, eta eseri zen egurrezko aulkian, eta antolatu zituen bere tresnak, eta tamaina hirukoitza zuen mihisea arretaz begiratu zuen, eta... Eta ezer ez. Berririo, ezer ez buruan, ez eskuan, ez inon.

Puzzleak betidanik gustatu zitzaizkion, baina ez zen une aproposa puzzle baten lehenengo pieza bilatzeko.

Edo agian bai?

Betiko estrategiara jo zuen: museoak. Horrelako egoera batean, museoren batean inspirazioz bustitzea zen irtenbidea. "Aiii, ze azkarra zaren, Pablito!" bere buruari esanez, gertuen zegoen museo bisitatzeko bideari ekin zion. Hain gogotsu zegoen, ez ziola museoak letra larri adierazten zionari erreparatu: ETORKIZUNA MUSEOA.

Gure artista, museoan barrena igaro ahala, hasi zen zerbait arraroa sumatzen: koadroak mugitu egiten ziren. "Honek etorkizuneko dirudi!", asmatu zuen. "Etorkizuna izan arren, ez da etorkizun hain ederra." Nota azkar batzuk egin koadernotxo batean, eta hurrengo galeria futuristikora pasa zen. Bigarren galeria honetan (bi zere bi sei deiturikoa), ezer onik ez; hilketak identifikatu zitzakeen Pablok. Are gehiago, hilketak defendatzen zituzten helduak, oso ondo jantziak eta eroak, Pabloren ustean.

Ondorengoko salak berdintsuak ziren: alde batetik, umeak laguntza oihuka eskatzen, haien etxe suntsituak atzeko planoan. Bonbak. Sua. Jendea kolean, heriotzaren magalean. Beste aldean, trajedunak, etxe handietan, barrez, lagun artean, edaten. Irudi mugitu haietan guztietan agertzen ziren bandera berdinak, bai eta ero berdin-berdinak ere.

Geroz eta apunte gehiago zituen koadernotxoan, eta geroz eta denbora gutxiago pasa nahi zuen pareta desatsegin haien barruan. Zenbat urte falta ziren infernu hori bizitzeko? Etixerako bidea ez zen hain azkarra izan. Gogotsu atera eta deseroso sartu zen. Baina, hori bai, inspirazioz blai-blai.

Puzzleak orain bazuen forma. Egia esanda, gehiegizko forma. Soberan zeuden piezak, hainbeste bozeto eta nota zituen Pablok apuntatuta. Horregatik, lekua ipini zien apunte guzti-guztiei. Mihise erraldoia erosi eta lanari ekin zion. Arratsalde guztia eman zuen marrazten, diseinatzen, margotzen...

Hamar egunen ostean, obra bukatuta zegoen.

Etorkizunak zer zekarren ikusita, 1937. urtean Gernika izenburua jarri zion Pablo Picassok artelanari.

Galvani.



## BIZITZA ALDAKETA

Dena aldatu zen egunaren berri emango dizuet. Egun hartan milaka familien eta pertsonen bizitzak aldatu ziren eta hemen uzten dizuet niri gertatutakoa hamasei urte nituela. Ostiral batean izan zen. Ostiral hartan lotan nintzen bitartean soinu beldurgarri batek esnatu ninduen. Altxa eta gero, leihotik begiratu nuen eta su pila bat ikusi nuen etxe baten gainean. Bat-batean nire ama agertu zen nire logelan, joan behar ginela esanez. "Mirab, goazen, hartu behar duzun guztia". "Ama, zer ari da gertatzen?". "Maitia, guda hasi da. Israel gu bonbardatzen hasi da. Goazen!". Momentu horretan ulertu nuen nire bizitza betirako aldatzera zihoala.

Gelatik atera ginen ama eta ni, eta Abdelen logelara joan ginen. Egoera azaldu genion lasai, baina nire anaia txikia negarrez hasi zen. Amak besotan hartu zuen eta leherketen zaraten artean gure etxetik atera ginen. Aita falta zenez amari galdetu nion berari buruz. Amak totalka esan zidan lanean zegoela eta berarekin geroxeago topatuko ginela. Amari malko txiki bat erori zitzaionean, seguruena aita berriro ikusiko ez nuela ohartu nintzen. Kalera atera ginen, autobus bat zegoen gure eraikinaren aurrean gu itxoiten. Barruan sartu ginen, gidariak azkar sartzeko esan zigun, eta aurreko eserleku batean eseri ginen. Autobusa martxan jarri zen barruan pertsona pila batekin. Azkenean lo hartzea lortu nuen amaren magalean.

Hurrengo egunean esnatu nintzenean Jabalian geunden. Jabalian zegoen suntsipena ikaragarria zen: jendea lurretik botata, odola leku guztietan... Begirada kendu behar izan nuen paisaia beldurgarri horretatik. Abdelek lotan jarraitzen zuen oraindik, eta ama esna zegoen beste bidaiariekin hitz egiten. Bat-batean autobusa gelditu egin zen. Ama niregana hurbildu zen eta belarrira xuxurlatu zidan autobusetik momentu batean jaitsiko zela zaurituta zegoen pertsona bati laguntzeko. Erregu egin nion amari ez joateko, arrisksua zela. Orduan amak esan zidan laguntzeko beharra zuela berari lagundu zioten bezala. Muxu bat eman zidan kopetan eta kalera atera zen beste bi pertsonarekin. Leihotik begiratu nuen nire ama ikusteko. Urrunean ikusi nuen zauritutako pertsona, bera ikustean sentimendu deskribaezinak sentitu nituen. Buru erdia bonbardatuta zeukan eta beso bat falta zitzaion. Amak hanketatik hartu zuen mutila eta beste biek geratzen zitzaion besotik eta bizkarretik heldu zuten. Poliki zetozen autobusera eta orduan ikusi nuen. Orduan ikusi nuen misil bat zerua zeharkatzen eta nire amaren gainean erortzen. Orduan sentitu nuen inoiz sentitutako sufrimendu eta minik handiena. Ama galdu nuen misil ziztrin horren erruagatik. Ama galdu nuen guda zentzugabe horrengatik. Lurrera bota nintzen, eta negar batean hasi nintzen atsekabetuta. Mundua gelditu egin zen, ez neukan inor ni zaintzeko ezta ni maitatzeko, gudak lapurtu zidan nire ama.

Hiru egun pasa nituen inori hitzik egin gabe, ezta nire anaia ere. Batzuetan geneukan janari gutxi hori sukaldatu behar nuen, beste batzuetan nire amak egin zuen bezala zauritutako jendea lagundu behar nuen. Gogoratzen dut janaririk gelditzen ez zenean nire anaia gosez ia hilda ikustea. Negar pila bat egin nuen egun haietan, baita jainkoari laguntza eskatu ere gauero.

Azkenean iritsi ginen Espainiara, gure helmugara. Autobusa azkenengo aldiz gelditu zen. Denok atera ginen kanpora horko aire garbia arnastera. Beldurrez kikilduta nengoan, ez nekien nola egongo nintzen hortik hilabete batzuetara, baina gauza positiboetan zentratu nintzen. Nire anaia neukan, lagunak egin nituen bidaiari eta garrantzitsuena, hemen gudarik gabe biziko ginen, libre biziko ginen.

Evelyn



## DINOSAUROAREN ITZALETIK IHESI

Etxeak hutsik zeraman egun luzez. Anbulantziaren sirena hotsa urruntzen joan ahala urte ugariz haize-olatuz beterik egon zen lakua izoztu egin zen. Gas-suaren gainean kafetera italiarra, harraskan anbar koloreko "duralex" baxera zikina, josteko materialak gordetzeko gurin gaileten ontzi metalikoa mahaian, inoiz etzan ez nintzen butaka iluna egongelan, beti lore faltan egon zen lorontzia... Dena hautsak janda.

Hiriaren beste puntan makinak konstante izateari utzi zion, itzali egin zen. Isiltasunak erabat bete zuen gela, ez nuen negar malkorik kanporatu, baina bere esku hotz eta apala askatzea ez zitzaidan erraza egin. Uste nuen azkenean dinosauroak pakean utzi ninduela, aske, katerik gabe.

Gauetz iritsi nintzen etxera, nekatuta, ohean etzan eta sabaiari begira arnasa sakon hartu nuen, lo ziplo. Eguzki izpi epelek esnatu ninduten hurrengo goizean, betikoa: pasilloan aurrera egin, komunetik pasa, sukaldera iritsi, sua piztu eta kafea martxan jarri nuen. Uneoro oroitzapenek kolpatzen ninduten, aginduek, oihuek... dirudienez dinosauroa desagertu zen, baina ez zen nigandik urrundu, astun, pisutsu, zakar jarraitzen zuen. Gehiegi ohitu zen nigandik urruntzeko, edo nintzen harengandik askatzeko. Bi malko atera zitzaizkidan. Urte gehiegi neramatzan beldurrez, hari lotuta. Momentuero dinosauroa zetorkidan burura, telebista paretik zerbeza bat ekar niezaion oihukatuz, janaria kritikatz, aginduak emanez, isilaraziz, ni neu gutxietsiz... Malkoak ugaritzen hasi ziren. Obeditzera ohitu nintzen, errutina mantentzera eta nire eginbehartzat hartzen nuen haren zaintza, horren orde z bueltan ezer ez jaso arren. Egun hartan konturatu nintzen ez nintzela bizi, jadanik gorpu bihurtu zenagatik biziraun egin nuen denbora luzez, gehiegiz.

Sua itzali, dutxa goxo bat hartu, armairua ireki, eroso jantzi eta kalera atera nintzen. Atarian bertan gelditu nintzen. Ez neken nora joan. Ezagutzen nuen ibilbide bakarra etxetik supermerkatua iristekoa zen. Buelta erdia eman, eta kontrako norabiderantz jo nuen, nire kabuz, aspaldiko partez.

Aurrera joan ahala, jende gehiago zegoen, giro politagoa. Lore denda baten ondoan aurkitu nuen lehen kafetegia. Bertan eseri nintzen, lore koloretsuei begira. Aspalditik ez nuen hain ebaki goxo probatu.

–Egun on! –esan nion.

–Berdin! Bota ba, zer nahi duzu? –erran zidan lorezainak.

–Ba, ahal duzunean prepatuidazu larroxa horien lore-xorta bat, mesedez!

–Noski! Zeinentzat ba?

–Neretzat.

Nire azken bihotz taupadara arte lorontzia beteta egongo da. Esnatzean, dinosauroak hemen jarraitzen dirau beti, baina harekin bizitzen ikasi dut, ez berarentzat eta ez bere menpe, libre eta lasai baizik.

Xarma



## DINOSAURO AMAIGABEA

2026ko urtarrilaren lehenengo eguna zen. Mariak aurreko egunean festa egin zuen, eta oso nekatuta zegoen. Familiarekin Urteberria ospatzeko bazkaria izan ondoren, etxera joan eta siesta egitea erabaki zuen. Neska gazteak oso amets arraroa izan zuen, non behin eta berriro zulo batetik erortzen zen, eta erori aurretik, jostailuzkoa zirudien dinosauro txiki bat ikusten zuen parez pare.

Ametsa amaitu zenean, Maria azken zulotik pasa zen, dinosauroa ondoan zuela. Eta esnatzean, dinosauroak han jarraitzen zuen. Begiak kliskatu zituen segundo batez eta jada jostailutxo ez zegoen han. Gure protagonista ez zen gehiegi larritu, erdi lo jarraitzen zuela pentsatuz. Sofatik altxa zen eta dutxa bat hartu zuen lasai-lasai.

Ordu bat pasata, lagun-kuadrillarekin geratu zen, kafe bat hartzeko planarekin. Bidean zihoala, Mariari bere ametsen agertutako dinosauro bera ikusi zuela iruditu zitzaion. Ez zion buelta handirik eman eta ibiltzen jarraitu zuen. Handik segundo gutxitara, bi kotxeen arteko istripu bat egon zen neskatoa zebilen pareko kalean.

Hori nahiko arraroa izan zela sentitu zuen Mariak, baina lagunekin elkartu zenean, ahaztu egin zitzaion. Etxera bueltatzean, egun hartan bertan, bere atariko ateko kristalean dinosauroaren isla sumatu zuen, eta hiru pixu igota, etxeko atea zabaltzen ari zela, kale osoan argia joan zela konturatu zen. Pixkanaka, aste oso batean zehar, horrelako gertakariak izaten jarraitu zuen, eta Maria gero eta larrituagoa zegoen.

Supermerkatura joan zela, dinosauroa han agertu, eta sute bat gertatu zen; denda batean zegoela, dinosauroaren isla ikusi zuen, eta han zeuden kristal guztiak apurtu ziren. Eta horrelako gertakariak astebetez bizi izan zituen gazteak.

Aste hori pasata, Mariak bere psikologoarekin hitz egitea erabaki zuen. Bere laguna zen Clara, psikologoa izateaz gain, Mariaren oso laguna zen eta oso ondo ulertzen zuten elkar. Pixkanaka, dinosauro-jostailu hori antsietatea zela antzeman zuten eta terapiako hainbat saio egin ondoren, dinosauroa Mariaren bizitzatik ateratzea lortu zuten. Neskatzaren bizitza lasaiagoa bihurtu zen eta ez zuen berriro dinosaurorik ikusi.

Bi urte pasata, udako larunbat lasai batean, Maria txuriz jantzita zegoen. Bartzelonako Sagrada Familia kanpoan zeuden bere gertuko pertsona guztiak eta oso minutu gutxi gelditzen zirela bere bizitzako egunik hoberena ospatzeko, dinosauroa agertu zen han, elizako atarian.

Tulipan arroxa



## INBOLUZIOA

Erotuta nagoela pentsatuko duzu. Berdin zait. Eskatzen dizudan gauza bakarra da entzun dezazun. Utdzazu kontatzen nola bihurtu ziren amesgaizto lehenago nire gogokoenak izan ziren dinosauroak. Ez nuke jakingo esaten noiz hasi zen. Beharbada hasieratik nengoen kondenaturik. Noiz ezagutu genuen elkar gogoan dut, ordea.

Egun eguzkitsua zen, nire haurtzaro osoa bezalaxe. Parkean nenbilen jolasean eta ezerk ez ninduen bertatik aterako.

Horregatik, amak hirugarrenez deitu zidanean bakarrik agurtu nituen ostiraleroko jolaskideak. Amarengana iritsi nintzenean, aldez, sorpresa bat nuen zain. Hura izan zen dinosauroak ezagutu nituen eguna.

Lau horma zuri hauen artean askotan etorri zait gogora momentu hura. Urrun ikusten dut, urrune gi 10 urte besterik ez izateko geroztik pasa direnek. Memoriak ahaztu du zeinen gustuko nituen eta orain nazka ematen didate. Edozer emango nuke oroitza pen horiek erreallitate bihurtzeagatik. Hemendik ateratzeagatik edozer. Nire "arazoa" ez zen animalia hauekin hasi, ordea. Bukaera besterik ez ziren izan.

Hasieran, ona nintzen, oso ona, zeren eta inork ez baitzuen nabaritzen. Erraza eta guzti zen, hain erraza non gustuko bainuen. Esaterako, ostegunetan institututik jarraian entrenamenduetara joaten nintzenez, bokata eramaten nuen bazkaltzeko. Saiatzten nintzen, baina mokadu baten ostean, apetitua joaten zitzaidan. Bokata erdiak ziren zakarontzira zihoazanak irailan. Ekainerako lortu nuen ezer ez jatea. Hori ostegunetan bakarrik, beste egunetan polizia balitz egoten zen ama. Pureari bueltaka aritzen nintzen bitartean, haren eguna kontatzen zidan.

Zurea zer moduz, Jare?

Zarataren bat egingo nuen, erantzun gisa hartuko zuena, berean jarraitu baitzuen.

Marrubiak gustatu?

Bai.

Hura zen erantzun zuzena, probatu ere egin ez banituen ere. Irribarre egin eta postuan ikusi zituenean, zuten distiragatik bakarrik, onak aterako zirela bazekiela esan zuen harro.

Ama poliziarekin alderatu badut, orain inguratzten nautenak soldaduskako kideak dira. Egiten dudana egiten dudalarik begira dauzkat, komunera noanean eta guzti. Komunera noanean da bereziki begirik kentzen ez didaten momentua.

Ulertu nahi ditut. Hala ere, nire "arazoa" ez da nire parte bakarrik, ni naiz bera. Harekin hobeto nagoela dio nire barneko deabruak.

Aditu bihurtu nintzen otorduak nola edo hala ekiditen. Komunera beste edonon baino gehiago egoten nintzen eta ez zuen inork nabaritu. Entrenamenduak uztea, nerabezaroagatik iritsi zela pentsatu zuten. Berez, taldekideen aurreko dutxak kenduta inork ezingo ninduelako epaitu zen. Hala eta guztiz ere, hainbeste momentu ziren ezkutatatu behar nituenak, azkenean antzeman nindutela.

Anaia izan zen komunetik behera bazkari guztia botatzen harrapatu ninduen. Oraindik ume bat zelako edo ez zekiela zer egin, ez zen desberdintasunik eman egun hartatik aurrera. Hori bai, haren ikara aurpegiak geroztik jarraitu nau. Behintzat lagunak eta dinosauroak nituen. Hain zoriontsu egin ninduten lehenengo aldia, aitari gaileta zoragarri horiek berriro eros zitzaizkidan eskatu bainion. Momentu batzuk zeuden dena lehengo a izatera bueltatzea posible zitekeela pentsatzen nuen.

Tuntuna ni, horrelakoak ez dira dinosauroen gisa, bat-batean desagertzen. Baina hondamendi bat bai eman zela, nire bizitza hankaz gora jarriko zuena.

Beste behin ere, dinosauroekin izan zen. Ordu arte lagunak ez zuten ulertu, nahiz eta ikusten zuten. Nik neuk ere ez nuen ulertzen. Gertatu zenaren ondoren, inork ezin izan zuen ezikusiarera egin.

Hamaiketarako eraman nituen gailetak. Lehenengo a ora iristear zela, nahi gabe lurrera bota nuen. Bigarrena indar handiagoz. Hirugarrenarekin lortuko nuen, baina ez. Dinosaurio bat besterik ez zen geratzen.

Hurrena gogoratzen dudana ohe honetan etzana nengoela da. Eta esnatzean, dinosauroak han jarraitzen zuten. Nire aurrean zegoen, probokatu nahi banindu bezala.

Hitz egingo balu, "erotuta zaude" esango luke. Zuk ere hori pentsatzen duzu, badakit. Berdin zait. Eskatzen dizudan bakarra hurrengo a da:

Dinosaurio gaileta jaten badut, eroetxe honetatik aterako nauzu?



## INBOLUZIOA

Erotuta nagoela pentsatuko duzu. Berdin zait. Eskatzen dizudan gauza bakarra da entzun dezazun. Utzidazu kontatzen nola bihurtu ziren amesgaizto lehenago nire gogokoenak izan ziren dinosauroak. Ez nuke jakingo esaten noiz hasi zen. Beharbada hasieratik nengoen kondenaturik. Noiz ezagutu genuen elkar gogoan dut, ordea.

Egun eguzkitsua zen, nire haurtzaro osoa bezalaxe. Parkean nenbilen jolasean eta ezerk ez ninduen bertatik aterako. Horregatik, amak hirugarrenez deitu zidanean bakarrik agurtu nituen ostiraleroako jolaskideak. Amarengana iritsi nintzenean, aldiz, sorpresa bat nuen zain. Hura izan zen dinosauroak ezagutu nituen eguna.

Lau horma zuri hauen artean askotan etorri zait gogora momentu hura. Urrun ikusten dut, urrune 10 urte besterik ez izateko geroztik pasa direnek. Memoriak ahaztu du zeinen gustuko nituen eta orain nazka ematen didate. Edozer emango nuke oroitzapen horiek errealtate bihurtzeagatik. Hemendik ateratzeagatik edozer. Nire "arazoa" ez zen animalia hauekin hasi, ordea. Bukaera besterik ez ziren izan.

Hasieran, ona nintzen, oso ona, zeren eta inork ez baitzuen nabaritzen. Erraza eta guzti zen, hain erraza non gustuko bainuen. Esaterako, ostegunetan institututik jarraian entrenamenduetara joaten nintzenez, bokata eramaten nuen bazkaltzeko. Saiatzen nintzen, baina mokadu baten ostean, apetitua joaten zitzaidan. Bokata erdiak ziren zakarrontzira zihoazenak irailen. Ekainerako lortu nuen ezer ez zatea. Hori ostegunetan bakarrik, beste egunetan polizia balitz egoten zen ama. Pureari bueltaka aritzen nintzen bitartean, haren eguna kontatzen zidan.

Zurea zer moduz, Jare?

Zarataren bat egingo nuen, erantzun gisa hartuko zuena, berean jarraitu baitzuen.

Marrubiak gustatu?

Bai.

Hura zen erantzun zuzena, probatu ere egin ez banituen ere. Irribarre egin eta postuan ikusi zituenean, zuten distiragatik bakarrik, onak aterako zirela bazekiela esan zuen harro.

Ama poliziarekin alderatu badut, orain inguratzen nautenak soldaduskako kideak dira. Egiten dudana egiten dudalarik begira dauzkat, komunera noanean eta guzti. Komunera noanean da bereziki begirik kentzen ez didaten momentua. Ulertu nahi ditut. Hala ere, nire "arazoa" ez da nire parte bakarrik, ni naiz bera. Harekin hobeto nagoela dio nire barneko deabruak.

Aditu bihurtu nintzen otorduak nola edo hala ekiditen. Komunean beste edonon baino gehiago egoten nintzen eta ez zuen inork nabaritu. Entrenamenduak utzea, nerabezeroagatik iritsi zela pentsatu zuten. Berez, taldekideen aurreko duxak kenduta inork ezingo ninduelako epaitu zen. Hala eta guztiz ere, hainbeste momentu ziren ezkutatuta behar nituenak, azkenean antzeman nindutela.

Anaia izan zen komunetik behera bazkari guztia botatzen harrapatu ninduen. Oraindik ume bat zelako edo ez zekielako zer egin, ez zen desberdintasunik eman egun hartatik aurrera. Hori bai, haren ikara aurpegiak geroztik jarraitu nau. Behintzat lagunak eta dinosauroak nituen. Hain zoriontsu egin ninduten lehenengo aldian, aitari gaileta zoragarri horiek berriro eros zitzaizkidan bainion. Momentu batzuk zeuden dena lehengoak izatera bueltatzea posible zitekeela pentsatzen nuena.

Tuntuna ni, horrelakoak ez dira dinosauroen gisa, bat-batean desagertzen. Baina hondamendi bat bai eman zela, nire bizitza hankaz gora jarriko zuena.

Beste behin ere, dinosauroekin izan zen. Ordu arte lagunak ez zuten ulertu, nahiz eta ikusten zuten. Nik neuk ere ez nuen ulertzen. Gertatu zenaren ondoren, inork ezin izan zuen ezikusiarena egin.

Hamaiketarako eraman nituen gailetak. Lehenengoa ahora iristear zela, nahi gabe lurrera bota nuen. Bigarrena indar handiagoz. Hirugarrenarekin lortuko nuen, baina ez. Dinosauro bat besterik ez zen geratzen.

Hurrena gogoratzen dudana ohe honetan etzana nengoela da. Eta esnatzean, dinosauroak han jarraitzen zuten. Nire aurrean zegoen, probokatu nahi banindu bezala.

Hitz egingo balu, "erotuta zaude" esango luke. Zuk ere hori pentsatzen duzu, badakit. Berdin zait. Eskatzen dizudan bakarra hurrengo da:

Dinosauro gaileta jaten badut, eroetxe honetatik aterako nauzu?

1. maila  
**PROSA**

AKZESITA

IRAIA ARROYO FRANCO

**Hiru anaia itsasoan galduta**



1. maila  
**PROSA**

AKZESITA

NAHIA GAJATE SALVADOR

**Hosto magikoa**



1. maila  
**PROSA**

AKZESITA

NOA LOPERA ARANZABAL

**Luna, Laura eta Lluna katua**



2. maila  
**POESIA**

AKZESITA

MALEN JIMENEZ CHANCA

**Bi pertsonen arteko maitasuna**



2. maila  
**POESIA**

AKZESITA

MARTINA BEZANILLA PEREZ

**Urtaroak**



2. maila  
**POESIA**

AKZESITA

ELIA FRANCO ENCINAS

**Zergatik, Gernika?**



2. maila  
**PROSA**

AKZESITA



UDANE ETXEBESTE CERECEDA

**Ezin berdin!**

2. maila  
**PROSA**

AKZESITA



EIDER GARCÍA PÉREZ

**Birramona?**

2. maila  
**PROSA**

AKZESITA



ARHANE MINER LOPEZ DE ABERASTURI

**Azken ipuina**

3. maila  
**POESIA**

AKZESITA

MARTIN VALLEJO ALBISU

**Mina**



3. maila  
**POESIA**

AKZESITA

AIORA MARTIN PEÑA

**Zure presentzian**



3. maila  
**POESIA**

AKZESITA

LIBE AGIRRE SAENZ DE URTURI

**Zuloan**



3. maila  
**PROSA**

AKZESITA



HECTOR MARCOS CEBALLOS

**Turkesa itsasoa**

3. maila  
**PROSA**

AKZESITA



XARE IMAZ GIL

**Nire bidaia**

3. maila  
**PROSA**

AKZESITA



MICHELLE OWIE ALOHAN

**Nerabezaroan gelditu behar den bullying-a**

4. maila  
**POESIA**

AKZESITA

UXUE MICHELENA GIL

**Sufritu genuena**



4. maila  
**POESIA**

AKZESITA

MAIRI MAYA CASTAÑO

**Itsasoari begira**



4. maila  
**POESIA**

AKZESITA

IRENE DOMINGUEZ DE LA CRUZ

**Arrosa beltzen artean**



4. maila  
**PROSA**

AKZESITA



NOA PASCUAL GOMEZ

**Zubia**

4. maila  
**PROSA**

AKZESITA



MAIDER VILLA ALBERDI

**Lehenengo eguna**

4. maila  
**PROSA**

AKZESITA



ALEXANDRA PAVLYUK IVANYUK

**Iluntasunean distira badago**

5. maila  
**PROSA**

AKZESITA



MAIALEN GARAYARTABE AZCONA

**Berriror ere betikoa**

5. maila  
**PROSA**

AKZESITA



RIHAB TAHTAH ASSOUKI

**Haizearen erlojuaren ahotsak**

5. maila  
**PROSA**

AKZESITA



UXUE GARCÍA SÁNCHEZ

**Goizeko itzala**

# ESKERRIK

# ASKO

